



Historia

EZAGUTU SAILA

DBHko 4. mailarako Geografia eta Historia liburua Zubia Editoriala, S. L.ren eta Santillana Educación, S. L.ren Hezkuntza Argitalpenetarako Sailean **Joseba Santxo Uriarteren** eta **Teresa Grence Ruizen** zuzendaritzapean sortu, taxutu eta gauzaturiko talde-lana da.

Liburu honen prestatze- eta argitaratze-lanean honako talde honek esku hartu du:

Nerea Atxega Zubikarai
María Ángeles Fernández de Bartolomé
José Manuel Fernández Ros
Iñaki Mendoza Gurrea
Ana María Palacios Alberti

EDIZIOA

Ainhoa Basterretxea Llona
María Ángeles Fernández de Bartolomé

PROIEKTUAREN ZUZENDARITZA

Joseba Santxo Uriarte
Lourdes Etxebarria Orella

Liburu honetako ariketak ezin dira inola ere liburuan bertan egin. Ariketetan proposatzen ditugun taulak, eskema eta gainerako baliabideak ikasleak koadernoan egin beharrekoen ereduak baino ez dira.

Unitatea	Hasierako irakurgaia	Jakin	Egiten jakin	Ba ote dakizu?
Historiari buruzko hitzaurrea 8			- Denbora-lerro bat egitea - Mapa historiko bat interpretatzea	
1 Antzinako Erregimenaren krisialdia 14	Nolakoak izan ziren Ilustrazioko gorreak?	1. Antzinako Erregimena 2. Gobernu motak XVIII. mendearen hasieran 3. Ilustrazioa eta Antzinako Erregimenaren kritika 4. Ondorengotza Gerra 5. Espainiako despotismo ilustratua 6. Antzinako Erregimenaren krisialdia euskal lurraldeetan 7. Ilustrazioa euskal lurraldeetan	- Antzinako Erregimenaren giza piramidea interpretatzea - Herri-olerki batetik informazio historikoa ateratzea 1766ko matxinadaren marrazki bat interpretatzea	La Guaira eta Puerto Cabello
2 Iraultza liberalak eta nazionalismoak 40	Uztailaren 14a zergatik da festa nazionala Frantzian?	1. Amerikako Iraultza 2. Frantziako Iraultzaren hasiera 3. Iraultzaren erradikalizazioa 4. Napoleonen garaiko Europa 5. Errestaurazioa 6. Iraultza-bolada berriak (1820-1848) 7. Nazionalismoak. Italiaren bateratzea 8. Alemaniaren bateratzea 9. Frantziako Iraultzaren eragina euskal lurraldeetan	- Vienako Kongresuko karikatura bat interpretatzea - Pinturaren bidez iraultzak interpretatzea	- Verdi eta Italiaren bateratzea - Chasseurs basques
3 Industria Iraultza eta gizarte-aldaketak 66	Lurrun-makina benetan iraultzailea izan al zen?	1. Industria Iraultzaren sorrera 2. Lehen Industria Iraultza 3. Garraioen iraultza 4. Bigarren Industria Iraultza 5. Industria Iraultzaren hedapena 6. Industrializazioak biztanlerian izandako eraginak 7. Klase-gizartea. Goi-mailako klaseak 8. Erdi- eta behe-mailako klaseak 9. Langile-mugimenduaren sorrera	- Trenbidearen eragina aztertzea XIX. mendeko migrazioak aztertzea - Bizimoduak alderatzea pinturaren bidez - Ideologia marxista eta anarkista alderatzea	Aldaketak garraioetan
4 Espainia eta euskal lurraldeak XIX. mendean 96	Goya bere garaiko kronikari bat izan al zen?	1. Independentzia Gerra (1808-1814) 2. Cádizko Gorreak 3. Fernando VII.aren erregealdia (1814-1833) 4. Hispanoamerikako kolonien independentzia 5. Elisabet II.a eta estatu liberalaren sorrera (1833-1868) 6. Seiurteko Demokratikoa (1868-1874) 7. Berrezarkuntza 8. Industria Iraultza Espainian 9. Gizarte-aldaketak 10. 1808-1876 euskal lurraldeetan 11. Industria Iraultza eta gizarte-mugimenduak euskal lurraldeetan	Organigrama bat interpretatzea	- Gorteen Cádiz - Donostiaren sutea
5 Inperialismoa, gerra eta iraultza 126	Nolakoak zen trintxeretako bizimodua?	1. XIX. mendearen bigarren erdiko potentzia handiak 2. Inperialismoaren faktoreak 3. Inperio kolonial handiak 4. Administrazio koloniala eta haren eraginak 5. Lehen Mundu Gerraren sorrera 6. Gerraren garapena 7. Lehen Mundu Gerraren ondorioak 8. Errusiako Iraultzaren sorrera 9. 1917ko iraultzak eta gerra zibila Errusian	- Kolonialismoari buruzko karikatura bat interpretatzea - Lehen Mundu Gerraren ondorengo lurralde-aldaketak aztertzea - Propaganda politikoaren kartelak interpretatzea	
6 Gerra arteko mundua 156	1920ko hamarkadako urteak zoroak eta zoriontsuak izan al ziren?	1. 1920ko hamarkadako susperraldi ahula 2. Hogeita hamarreko hamarkadako Depresio Handia 3. Totalitarismoen goraldia 4. Italia faxista 5. Nazismoaren jatorriak 6. Alemania nazia: erregimen totalitario bat 7. SESBen sorrera (1922-1929) 8. Stalinen diktadura (1929-1953)	- Eleberri batetik informazio historikoa ateratzea - SESBen sorrera aztertzea	- Adolf Hitler - Bizitza koljos batean

Jakingai	Amaierako ataza	Pentsatzeko moduak	Konprometituak	Lan kooperatiboa
Euskadiko Artxibo Sistema Nazionala (EASN)				
<i>Entziklopedia</i>, ilustrazioaren hedabidea - Goya, erretratugile aparta - Bizitza Borboien gortean	Teknika. Ilustratuen pentsamoldea alderatzea Kasu bat. Zer zioen prentsak XVIII. mendean?	Analisi zientifikoa. Iraultza zientifikorik izan al zen ilustrazioarekin batera?	Ilustrazioaren garaiko ondarea	Ibilbide bat Karlos III.aren Madrilén zehar
Iraultzaren sinboloak	Teknika. Gizakiaren eta Herritarraren Eskubideen Adierazpena interpretatzea Kasu bat. <i>Arabiar Udaberria</i>, beste <i>Frantziako Iraultza</i> bat?	Analisi zientifikoa. Zer betekizun izan zituzten emakumeek Frantziako Iraultzan?	Iraultzen eta nazionalismoen ondarea	Ibilbide bat iraultza garaiko Parisen zehar
- Lehen ehungintza-fabrikak - Hiri industrialak	Teknika. Industria Iraultza aztertzea eleberrien bidez Kasu bat. Industria Iraultza eguneroko bizitzan	Analisi etiko eta morala. Zer baldintzatan egiten zuten lan emakumeek eta hurrek?	Industria-iraultzen ondarea	Erakusketa unibertsalen helburuari buruzko eztabaida
	Teknika. Karikaturen bidez historia aztertzea	Analisi zientifikoa. Espainiako Industria Iraultza: arrakasta ala porrota?	XIX. mendearen ondarea Espainian eta euskal lurraldeetan	<i>Mariana Pineda</i> antzerkia
Atzeguardiako bizimodua	Teknika. Afrikaren kolonizazioa aztertzea, mapen bidez	Analisi etiko eta morala. Nola bizi izan zuten Gerra Handia protagonistek?	Inperialismoaren, Gerra Handiaren eta Errusiako Iraultzaren ondarea	Gerra Handiaren ondorioei buruzko eztabaida
- Emakumearen eskubideen aldeko borroka - Errepresioa eta propaganda	Kasu bat. Eskuin muturraren hedapena European	Analisi zientifikoa. Fidagarriak al dira argazki guztiak?	Gerra arteko garaia ondarea	Film baten azterketa: <i>Diktadore handia</i>

Unitatea		Hasierako irakurgaia	Jakin	Egiten jakin	Ba ote dakizu?
7 Bigarren Mundu Gerra	182	Zientzia armen zerbitzura jarri ote zen?	- Gerraren zergatiak eta leherrarazlea - Ardatzaren ofentsiba (1939-1941) - Aliatuen garaipena (1942-1945) - Holokaustoa - Bakearen antolamendua - Gerraren ondorioak	Bigarren Mundu Gerraren osteko lurralde-aldaketak aztertzea	- Winston Churchill - Holokaustoa gogoratzeko lekuak
8 Espainia eta euskal lurraldea: 98ko krisialditik Gerra Zibilera	206	Zergatik bihurtu da <i>Gernika</i> margolana sinbolo bat?	98ko hondamendia - Berezarkuntzaren Krisialdia (1902-1931) - Errepublikaren garaipena eta Biurteko Erreformista (1931-1933) - Biurteko Kontserbadorea eta Fronte Popularra (1933-1936) - Gerra Zibila - Eguneroko bizitza gerra-garaian - Gerra Zibilaren ondorioak 1902-1934 urteak euskal lurraldeetan	98ko krisialdian prentsak izandako papera aztertzea - Gerra Zibila aztertzea mapen eta ardatz kronologiko baten bitartez - Gerra Zibila aztertzea euskal lurraldeetan ahozko lekukotasunen bidez	- Aste Tragikoa - Emakumezko milizianoak - Lehen Eusko Jaurilaritza
9 Gerra Hotza	234	Zergatik ikaratu zuen mundua Vietnamgo Gerrak?	- Gerra Hotzaren hasiera - Gerra Hotzeko blokeak - Hastapenetatik bizikidetza baketsura (1947-1953) - Bizikidetza baketsutik Kubako Krisialdira (1953-1962) - Tentsio gorenetik krisialdira (1963-1973) - Gerra Hotza berriz piztea eta amaiera (1973-1991)	- Gerra Hotzari buruzko karikatura bat interpretatzea - Munduaren banaketa aztertzea blokeka	
10 Deskolonizazioa eta Hirugarren Mundua	256	Nork egin zuen erresistentzia baketsuaren alde?	- Deskolonizazioa - Asiaren eta Ozeaniaren deskolonizazioa - Ekialde Hurbila - Afrikaren deskolonizazioa - Hirugarren Munduaren sorrera	Deskolonizazioari buruzko karikaturak interpretatzea	- Kaxmirreko gatazka - Afrikaren Deskolonizazioaren protagonistak
11 Mundua 1945etik gaur egun arte	274	Bizi al gaitezke teknologia berririk gabe mundu globalizatu honetan?	- Mendebaldeko Europa: demokrazia eta aldaketa soziala - Europar Batasuna, ekimen original bat - Estatu Batuak, potentzia handi bat - Ekialdeko Europa: SESB eta herri-demokraziak - Bloke komunistaren desagertzea - Ekialdeko Asiaren garapena - Tentsioak eta gatazkak Latinoamerikan - Tentsioak eta gatazkak Asian eta Afrikan XXI. mendean goraka doazen potentziak - Mundu islamikoa, tentsioan dagoen espazioa - Mundua gaur egun: mundu globalizatu bat XXI. mendeko erronkak eta arazoak	1988ko Europako mapa eta gaur egungo Europakoa konparatzea - Errefuxiatuen jatorriari buruzko grafiko bat aztertzea	- Alemaniarren ekonomia - EFTA - Latinoamerikako populismoak - Munduko Foro Soziala
12 Espainia eta euskal lurraldeak: diktaduratik demokraziara	310	Zer izan zen desgarrollismoa?	- Frankismoko lehen urteak (1939-1949) - Erregimena finkatzea eta desgarrollismoa (1950-1973) - Diktaduraren amaiera (1973-1975) - Etenik gabeko trantsizioa 1978ko Konstituzioa eta Autonomien Estatua - PSOEren gobernuak (1982-1996) - PP eta PSOE txandakatzea (1996-2015) - Ekonomia- eta gizarte-alaketak Espainia demokratikoan - PP eta PSOE txandakatzea (1996-2015) - Frankismoa euskal lurraldeetan - Ekonomia- eta gizarte-alaketak euskal lurraldeetan	- Hazkunde ekonomikoa grafikoen bidez aztertzea - Euskal lurren lurralde-antolaketa aztertzea - Hauteskundeetako grafikoen alderatzea	- Makien erresistentzia - Hezikuntza-maila altuagoa
IKT-proiektua	338	Katalogo bat egitea euskal lurraldeen XX. mendeko historiako argazki garrantzitsuenekin			
Funtsezko testu historikoak	342				
Glosarioa	348				

Jakingai	Amaierako ataza	Pentsatzeko moduak	Konprometituak	Lan kooperatiboa
- Kolaborazionismoa eta erresistentzia gerran - Nurenbergeko epaiketak	Teknika. Oroitzapen batzuk aztertzea: <i>Ana Frank-en egunkaria</i> Kasu bat. Gerrek eragindako biztanleria-lekualdatzeak	Analisi etiko eta morala. Justifikaziorik izan al zuten Hiroshiman eta Nagasakin jaurtitako bonbek?	Bigarren Mundu Gerrak utzitako ondarea	Bigarren Mundu Gerraren memoria historikoari buruzko eztabaida
- Emakumeen zeregina Bigarren Errepublikako garaian - Gerra, eta ondarea babestea - Gerrako haurrak	Teknika. Gerra Zibila aztertzea kantuen bitartez Kasu bat. Bigarren Errepublikako hezkuntza-iraultza	Analisi zientifikoa. Zergatik bonbardatu zuten Gernika?	XX. mendearen lehen herenak Espainian eta euskal lurraldeetan utzitako ondarea	Gerra Zibileko kartelen erakusketa bat
Gerra Hotzeko armamentu-lehia			Gerra Hotzak utzitako ondarea	Espazioko lehiari buruzko ikerketa bat
Hegoafrika: <i>apartheid</i>etik demokraziara		Analisi etiko eta morala. Nola bizi dira emakumeak gutxien garatutako herrialdeetan?	Deskolonizazioaren ondarea	Kolonialismoari eta azpigarapenari buruzko txosten bat
- EBren sinboloak - Emakumearen iraultza - Kuba castrista		Analisi zientifikoa. Nola sortu zen 2007ko krisi ekonomikoa?	Gure munduaren ondarea	Globalizazioak eguneroko bizitzan duen eraginaren azterketa
Eguneroko bizitza frankismoan	Teknika. Gernikako Estatutua aztertzea		Frankismoaren eta trantsizioaren ondarea	Gaur egungo Euskadiri buruzko bideo bat

JAKIN

- Deskolonizazioa: kausak eta etapak.
- Asiaren, Afrikaren eta Ozeaniaren deskolonizazioa.
- Ekialde Hurbileko auzia.
- Hirugarren Munduaren sorrera.

EGITEN JAKIN

- Deskolonizazioari buruzko karikaturak interpretatzea.
- Gutxien garatutako munduan emakumeak duen egoera baloratzea.
- Txosten bat egitea kolonialismoaren eta azpigarapenaren arteko loturari buruz.

GEURE BURUARI GALDEZKA. Nork egin zuen erresistentzia baketsuaren alde?

Gandhik gogor egin zuen lan Indiak Erresuma Batuekiko inepentzia lortzeko. Zeregin horretan, desobedientzia zibilaren aldeko kanpainak baliatu zituen, eta uko egin zion britainiar okupazioa amaitzeko indarkeria erabiltzeari. Hori lortzeko, beste bide batzuk aukeratu zituen, hala nola manifestazio baketsuak, gose-grebak, eserialdiak eta britainiar produktuei boikota egitea. Horri esker, Indiak independentzia lortu zuen, 1947an.



INTERPRETATU IRUDIA

- Nor izan zen Gandhi?
- Zer esanahi zuen, Gandhirentzat, indarkeriarik ezak? Lortu al zuen bere helburua, taktika hori baliatuta?
- Zer eragin izan du Gandhiren ideologiak harrezkero izan diren mugimenduetan, hala nola mugimendu ekologistan eta bakezalean?
- Zer deritzozu ekintzarako bide baketsuei buruz? Arrazoitu erantzuna.

Gandhiren biografia

Mahatma ('arima handia')
Gandhi: lider nazionalista hindua
eta indarkeriarik ezaren profeta.

1869an jaio zen, porbandar-en (India).

1888an Londresera joan zen, zuzenbidea ikastera.

1893an Hegoafrikara jo zuen, lanera.

1915ean Indiara itzuli, eta Indiako Kongresu Nazionalaren buru bihurtu zen, Indiaren independentzia lortzeko. 1948an fundamentalista hindu batek hil zuen.





Gandhiren ideologia

Indarkeriari uko egitea ez da «gaiizkiaren aurkako borroka» uko egitea». Indarkeriarik eza, nik ulertzen dudan moduan, borroka errealagoa eta aktiboagoa da zigorra baino, zigorrak berekin baitakar gaiizkia areagotzea. Aldarri bat egin nahi dut, pentsamenaren eta moralaren bidez aurre egiteko moralik ezari. Gogo biziz dihardut zapaltzaileen ezpata koskatzearren, ez haien aurka arma zorrotzago bat altxatuz, baizik eta nigandik espero duten hori, erresistentzia fisikoaren bidez aurre egingo diedalako uste hori, ustel eginez, arimaren erresistentziak ihes egin beharko baitio zapaltzailearen ezpatari.

Mahatma Gandhi, Nire erlijioa



Gandhiren ondasunak, hil zen unean.

NOLA DAKIGU?

Pertsona baten **biografia** iturri aparta da, haren bizitzari buruzko datuak ez ezik, haren ideologiari eta bizipenei buruzko informazioa lortzeko.

- Irakurri Gandhiren biografia eta aipatu non ikasi zuen eta non egin zuen lan. Zure ustez, izan al zuen horrek eraginik haren pentsaeran?

FUNTSEZKO TESTU HISTORIKOAK

NBE eta deskolonizazioa

[...] Batzar Nagusiak hau adierazten du:

1. Oinarrizko giza eskubideak ukatzea da herrialdeak atzerritarren mende eta haien azpian eta esplotaziopean izatea, eta Nazio Batuen Gutunaren aurkakoa da [...].
2. Herrialde guztiek dute determinazio aserako eskubidea. Eskubide horren ondorioz, askatasunez zehazten dute beren izaera politikoa, eta askatasunez bultzatzen dute beren ekonomiaren, gizartearen eta kulturaren garapena. [...]
5. [...] independentzia lortu ez duten lurraldeetan berehala hartu beharko dira neurriak agintea lurralde horietako herriei emateko, baldintzarik eta erreparorik gabe, haiek askatasunez adierazitako borondatearekin eta nahiarekin bat, bereizketarik egin gabe arraza, sinesbidea edo kolorea dela eta, erabateko askatasunaz eta independentziaz goza dezaten.

NBEren Batzar Nagusiaren 1514 ebazpena,
1960ko abenduaren 14koa



- Zer jarrera du NBEk deskolonizazioaren aurrean? Zertan oinarritzen zen?



IKASTEKO GAKOAK

- Zer da deskolonizazioa? Zer alderdik izan zuten eragina prozesu horretan?
- Deskolonizazioaren zer etapa bereizten dira? Zer lurraldek lortu zuten independentzia etapa horietako bakoitzean?

PENTSATU. Zure ustez, zergatik ez zen hasi deskolonizazio-prozesua Bigarren Mundu Gerra baino lehen?

Deskolonizazioa: kausak

1945ean hasi zen **deskolonizazioa**, hau da, inperio kolonialen parte ziren lurralde gehienek independentzia politikoa lortzeko prozesua. Askotariko kausek eragin zuten:

- **Metropolien ahultasuna.** Bigarren Mundu Gerrak koloniei ikusarazi zein metropoliak ez direla garaiezinak.

Horrez gain, koloniek gerrari ekarpenak egin behar izan zizkieten, bai baliabide naturalak bai tropak. Eta, horrez gainera, beren lurraldean borroka egin behar izan zuten, metropoliaren etsaien aurka. Gerra hura zela eta, kolonietako biztanleek preskakuntza militarra jaso zuten, eta herriaren zenbait lider sortu ziren, independentziara bidean zeregin erabakigarria izango zutenak.

Bestalde, koloniak zirela-eta metropoliek zituzten gastuak (administrazioa, armada, azpiegiturak...) jada ez ziren konpentsatzen haietatik lortzen zituzten irabaziekin.

- **Mugimendu nazionalistak.** Kolonien okupazioaldi hartan indigena-eliteak eratzen joan ziren, apurka. Talde horiek europarren presentziarekiko kontzientzia kritikoa garatzen joan ziren, eta independentziaren beharra aldarrikatzen zuen pentsaera nazionalista garatu zuten.

Pentsaera horretan, hainbat alderdik eragin zuten, hala nola nortasun propioaren aldarrikapenak (panafrikanismoa); erlijioak, identitate-ikur den aldetik (panislamismoa), eta balio tradizionalen aldarriak, izan hizkuntza, kultura edo etnia propioak. Eragina izan zuten, halaber, marxismoan errotuta Europar sortutako kolonialismoaren aurkako ideiek.

- **Aldeko nazioarteko testuingurua.** Nazio Batuek, sortze-gutunean jasotako printzipioei jarraituz, kolonizatutako herrien autodeterminazio-eskubidea defendatu zuten, eta kolonien independentzia eskatu zuten.

Era berean, Gerra Hotzeko bi superpotentziek, Estatu Batuek eta Sobietar Batasunak, antzinako kolonia-inperioek irautea gaitzetsi zuten. Egia esan, superpotentziek laguntza behar zuten mundu mailako hegemonia lortzeko ahaleginean, eta horretan, bide eman zieten mugimendu independentistei, Europak herrialde horietan zuen eragina bere egin eta ordezkatzeko.

Deskolonizazioa: guneak eta kronologia

Deskolonizazioak milioika pertsonarengan izan zuen eragina, eta XX. mendeko berrogeiko hamarkadatik laurogeiko hamarkadara artean gertatu zen, batez ere. (2) Prozesua Asian abiatu zen (Filipinetan eta indiar azpikontinentean), eta handik, Asiako gainetarako lekuetara, Afrikara eta Ozeaniako zenbait lurraldetara zabaltzen zen.

Zenbaitetan, **nahiko bide baketsuen bidez** lortu zen independentzia, hau da, koloniaren eta haren antzinako metropoliaren arteko hitzarmenen bidez, bi aldeek zinez uste baitzuten bideraezina zela mendeko tasun-egoera hari eustea. Modu horretara desegin zen, oro har, Britainiar Inperioa. Beste zenbait lekutan, aldiz, **gatazka bortitzak** eragin zituen independentzia-prozesuak, hala nola Frantziar eta Holandar Inperioen kolonietan.

Deskolonizazioak berarekin ekarri zuen kolonien **independentzia politikoa**. Alabaina, askotan, ez zuen eragin antzinako metropoliarekin erabateko haustura, sortutako harreman berriek **mendekotasun ekonomikoa** ekarri baitzuten.

Deskolonizazio-prozesua hiru etapatan gertatu zen:

- **1945etik 1959ra.** Aldi horretan lortu zuten independentzia Asiako hegoaldeko eta hego-ekialdeko lurralde askok, Ekialde Hurbilak eta Afrikako zenbait herrialdek.
- **1960tik 1970era.** Deskolonizazioak Afrikako leku gehienetan eragina izan zuen. (1) Horrez gain, deskolonizazio-prozesua amaierara iritsi zen arabiar herrialdeetan eta Asiako zenbait eremutan.
- **1971tik gaur egunera arte.** Aldi horretan lortu zuten independentzia Afrikako azken koloniek (Angola, Mozambike...) eta beste zenbait lurralde. Hong Kong 1997an itzuli zion Erresuma Batuak Txinari, eta Makau 1999an, Portugalek Txinari. Ekialdeko Timor 2002an independizatu zen (portugaldar kolonia izan zen lehenik, eta ondoren, Indonesiaren parte). Hego Sudanek, berriz, 2011n lortu zuen Sudanetik independentzia.

Esanak esan, oraindik ere badira, NBERen hitzetan, **lurralde ez autonomoak**, antzinako inperio kolonialen hondarrak.

EGITEN JAKIN

Deskolonizazioari buruzko karikaturak interpretatzea




1. **Zaila da agur esatea**, Afrikaren deskolonizazioari buruzko karikatura (1960).

HONETARA EGIN

1. Deskribatu karikatura.
 - Nor irudikatzen dute Afrika itsasontziz uzten duten pertsonak?
 - Afrikako zer aberastasuni ez diote uko egin nahi?
 - Azaldu karikaturaren izenburua.
 - Zer mezu helarazten du irudi horrek?

2. ASIAREN ETA AFRIKAREN DESKOLONIZAZIOAREN MUGARRIAK





IKASTEKO GAKOAK

- Nor izan ziren Gandhi, Ali Jinnah, Ho Chi Minh eta Sukarno?
- Zer eragin izan zuen Bigarren Mundu Gerrak Asiako independentzia-prozesuetan?
- Zer defendatzen zuten Indiako Kongresu Nazionalak eta Liga Musulmanak?
- Nola independizatu zen India?
- Noiz sortu zen Bangladesh?
- Zer inperiotakoak ziren Indotxina eta Indonesia? Nola independizatu ziren? Zer herrialde sortu ziren, ondorioz?

PENTSATU. Ba al da koloniarik Asian, gaur egun?

India britainiarren independentzia

Bigarren Mundu Gerra baino lehen ere baziren mugimendu nazionalistak India britainiarren. Erlijioa zuten oinarri, eta Indiako bi gizatalde nagusiak ordezkaten zituzten:

- **Indiako Kongresu Nazionala.** 1885ean sortu zen eta nazionalismo hindua ordezkaten zuen. Gandhiren jarraitzaile bat, Nehru, izan zuen buru. Erresistentzia baketsua bultzatu zuen britainiarrek India utz zezaten. Kongresu Nazionalaren helburua zen independentziaren ondorioz estatu bakar bat sortzea.
- **Liga Musulmana.** 1906an sortu zen, eta Ali Jinnah izan zuen buru. Ligaren asmoa zen lurraldea banatu eta herrialde propio bat izatea, gaur egun Pakistan dena.

Bigarren Mundu Gerra amaitu ostean, britainiar gobernuak independentzia-plan bat mahaigaineratu zuen, Indiaren zatiketa aurreikusten zuena. 1947an, britainiar subiranotasunaren pean egoteari utzi zion Indiak. Prozesu hartan, bi estatu independente sortu ziren: **India** eta **Pakistan**. (3 eta 4)

Indiak sistema politiko demokratikoa eta egonkortasun politiko handia izan ditu harrezkero. Pakistanen, berriz, bi eskualde bereiz sortu ziren, Mendebaldeko Pakistan eta Ekialdeko Pakistan, eta ordutik, diktadura militarrek eta gobernu zibilak txandakatu dira. 1971n, Ekialdeko Pakistanek independentzia aldarrikatu, eta **Bangladesh** izena hartu zuen.


BA OTE DAKIZU?

Kaxmirreko gatazka

Kaxmir (3) Himalaiaren oinetan dagoen eskualde bat da, eta gehiengo musulmana du. India eta Pakistan independizatu zirenean, Kaxmirreko rajak nahi izan zuen lurralde horrek Indiarekin bat egitea, baina iparraldeko musulmanek aurre egin zioten, Pakistanen laguntzarekin. Hori horrela izanik, gerra izan zen 1947tik 1949ra artean. 1952an, Kaxmirren parte handi batek Indiarekin bat egin zuen, Pakistan aurka egon arren. 1972an, Indiak eta Pakistanek bi sektoretan banatu zuten Kaxmir, indiarra bat eta pakistandarra bestea. Hitzarmen horrek, ordea, ez du lortu gatazka gainditzea eta bi herrialdeen arteko liskarrak geldiaraztea.



3. INDIA BRITAINIARRAREN INDEPENDENTZIA ETA BANAKETA



4. ASIAREN DESKOLONIZAZIOA

Indotxina

Bigarren Mundu Gerran, Japoniak Indotxina okupatu zuen, frantziar kolonia bat, eta gertaera hark areagotu egin zuen lurralde hartako sentimendu nazionalista. Gerra amaitu eta japoniarrek lurralde hura utzi zutenean, Vietnamen Independentziaren Aldeko Liga (Viet Minh) mugimendu komunista liderrak, **Ho Chi Minh**-ek, independentzia aldarrikatu zuen. 1945. urtea zen.

Frantziak ez zuen aintzatetsi aldarrikapen hura, eta horren ondorioz, gerra izan zen 1946tik 1954ra artean. Gerra hura nazioarteko liskar bihurtu zen 1950etik aurrera, Viet Minheko miliziek Txinako Herri Errepublikaren laguntza izan baitzuten, eta frantziarrak, berriz, Estatu Batuenak –komunismoa Asian izaten ari zen aurrerakada geldiarazi nahi baitzuten–.

1954an, Viet Minhek Frantziako armada garaitu zuen **Dien Bien Phu** herrixkan, eta horren ondorioz, **Genevako Hitzarmenak** sinatu ziren. Haietan, Frantziak aitortu zuen Vietnamen, Laosen eta Kanbodiaren independentzia. Vietnam bi estatutan zatitu zen: Ipar Vietnam eta Hego Vietnam sortu ziren. (4)

Indonesia

Indonesia (Ekialdeko Herbeheretar Indiak izandakoa) ere okupatu zuten japoniarrek Bigarren Mundu Gerran. Japoniarren porrota eta ihesa gertatu eta egun gutxira, 1945ean, **Ahmed Sukarno** lider nazionalistak, Indonesiako Alderdi Nazionalistaren buruak, Indonesiako Errepublika aldarrikatu zuen. Herbeherek ez zuten aldarrikapen hura onartu, eta uhartedia berriro konkistatzen saiatu ziren.

1949an, Herbehereek Indonesiaren independentzia aintzatetsi zuten Hagako Konferentzian, Sukarno herrialdeko presidente zelarik. (4) 1966an, ordea, kolpe militar batek agindutik kendu zuen Sukarno, eta Suharto jeneralari eman zion boterea, 1967tik 1998ra arte.

Ozeania

Ozeaniako koloniak oso berandu emantzipatu ziren. 1960ko hamarkadan, Australia, Zeelanda Berria eta Samoa i Sisifo soilik ziren independente. Gainerakoak 1970eko eta 1980ko hamarkadetan independizatu ziren.

FUNTSEZKO TESTU HISTORIKOAK

Israelgo Estatuaren sorrera

Eretz-Israel (Israelgo Lurra) izan zen [...] juduen herriaren sehaska. [...]

Indarrez bere lurraldea uztera behartua izan arren, juduen herriak lurralde harekiko leial izaten jarraitu zuen, sakabanatuta egondako denbora guztian, eta ez zuen inoiz galdu [...] hara itzultzeko itxaropena. [...]

[...] Gu [...], Eretz-Israelgo komunitate juduaren eta mugimendu sionistaren ordezkariak, hemen elkar-tu gara, gaur, Eretz-Israelen gaineko britainiar agintea amaitu den egunean, gure eskubide naturala eta historikoa oinarri hartuta, eta Nazio Batuen Batzar Nagusiaren ebazpenak eman digun lege-babesaz, Eretz-Israelgo estatu juduaren, hots, Israelgo Estatuaren, ezarpena aldarrikatzeko.

David BEN GURION, 1948ko maiatzaren 14a



5. Ben Gurion, Israelgo Estatuaren sorrera aldarrikatzen.



- Ikertu eta azaldu zer helburu zituen mugimendu sionistak.
- Laburbildu testuaren edukia eta baloratu historian izan zuen garrantzia.

Ekialde Hurbila XX. mendearen lehen erdian

XIX. mendearen amaieraztik, **mugimendu sionistak** helburu bat zuen: estatu bat sortzea hainbat herrialde-tan sakabanatuta zegoen judu-herriarentzat. 1917an, **Balfourren Adierazpena** egin zen, eta han, Erresuma Batuak konpromisoa hartu zuen «Palestinan juduentzako etxe nazional bat bultzatzeko», hau da, VIII. mendetik arabiarren bizileku zen lurralde batean.

Lehen Mundu Gerra amaitutakoan, Nazioen Ligak Erresuma Batuen esku utzi zuen Palestinaren gaineko agintea. Ordura arte Palestinan **juduen immigrazioa** oso ugaria izan bazen ere, areagotu egin zen hogeita hamarreko hamarkadan, judu asko joan baitzen hara erregimen nazitik ihes, eta horrek ondoeza eragin zuen arabiarren artean.

1947an, NBEk onartutako ebazpen bat zela eta, britainiarrek Palestina utzi zuten, eta **Palestina bi estatutan zatitu** zen, judua bata eta arabiarra bestea. Juduek lurren % 55 eskuratu zuten, biztanleriaren % 33 ziren arren. Eta arabiarrek biztanleen % 66 izanda ere, haien esku utzitako lur-eremuak lurraldearen % 45 ziren, eta sakabanatuta zeuden. Jerusalem nazioarteko kontrolpean utzi zen.

Arabiar-israeldar gerrak

1948ko maiatzaren 14an, Britainia Handiak amaiera eman zion Palestinaren gaineko aginteari, eta David Ben Gurion-ek **Israelgo Estatuaren sorrera** aldarrikatu zuen. (5) Inguruko herrialde arabiarrek tropak bidali zituzten estatu berriaren aurka egin zezaten, eta horren ondorioz, **lehen arabiar-israeldar gerra** piztu zen. Gerra hartan, Israel izan zen garaile, eta bere lurraldeak zabaltu zituen, NBEk esleitutakoetatik harago: Mendebaldeko Jerusalem ere okupatu zuen. (6)

1956an, Egiptok **Suezko kanala** nazionalizatu zuen, eta erabaki horri erantzunez, Israelek, Frantziak eta Erresuma Batuak Sinai penintsula inbaditu zuten. NBERen eta Estatu Batuen presioak, ordea, atzera eginarazi zien.

1967an piztu zen hirugarren konfrontazioa: **Sei Eguneko Gerra**. Israelek Egiptori, Siriari eta Jordaniari eraso zien, eta Gaza, Zisjordania, Ekialdeko Jerusalem, Golango gairak eta Sinai penintsula konkistatu zituen. NBERen ebazpen batek atzera eginarazi zion Israeli.

Yom Kippur Gerra izan zen laugarrena. 1973an piztu zen, Egiptok eta Siriak Israelen posizioei eraso zietenean. Estatu Batuen laguntzarekin, Israelek galdutako lurak berreskuratu zituen.



6. ARABIAR-ISRAELDAR GATAZKA. NBERen proposamena eta lehen liskarrak (A). Israeldar zabalkundea 1967tik 1993ra artean (B). Israel eta Palestina, 1993ko hitzarmenen ondoren (C).

Bakegintzarako ahaleginak

Yom Kippur Gerraren ondoren, beharrezkotzat jo zen elkarrizketari bide ematea, eskualdea baketze aldera. Hala, 1978an **Camp Davideko Hitzarmenak** erdietsi ziren, Jimmy Carter Estatu Batuetako presidentearen bultzadarekin. Sinatzaileek, Anwar as Sadat Egiptoko presidenteara eta Menahem Begin Israelgo lehen ministroak, adostu zuten Israelek Egiptori itzuliko ziola Sinai, eta ordainetan, Egiptok aintzatetsi egingo zuela Israelgo Estatuak.

Hitzarmen horiek Israelen eta Egiptoren arteko nolabaiteko hurbilketa ekarri zuten, baina ez zuten eskualdera bakea eraman, eta lauogeiko hamarkadaren hasieran, **Libanoren aurrakio borrokei** ekin zien Israelek. Horren ondorioz, beste gatazka bat piztu zen eremu hartan, eta Israelgo armadak Libanoko hegoaldea okupatu zuen.

Bitartean, **PAE** Palestina Askatzeko Erakundeak ekintza terroristak egin zituen Israelen aurka (erakunde hori 1964an sortu zen, eta Jassir Arafat zuen buru). Aurrerago hiri-gerrillen taktikak baliatu zituen, okupatutako lurraldeetan Israelgo armadari aurre egiteko. Borroka horiei **Intifada** deritze, eta 1987tik 1993ra arte iraun zuten.

1991n **Madrilgo Konferentzia** egin zen, eta horren ondorioz, **Osloko Hitzarmenak** (1993) sinatu zituzten Isaak Rabinek, Israelgo lehen ministroak, eta Jassir Arafatek, PAEren buruak. Hitzarmen horietan elkar aintzatetsi zuten. Horrela, Palestinako Aginte Nazionala sortu zen, Palestinako gobernu autonomoa izango zuena, eta haren kontrolpean utzi ziren Gazako zerrenda, Jeriko zein haren inguruak eta Zisjordania. Jassir Arafat izan zen lehen presidentea. (6)

Dena dela, gatazkak bizirik dirau oraindik ere. Israelek koloniak eraikitzen ditu Palestinaren lurraldean, eta palestinarren matxinadak eta ekintza terroristak gertatzen dira. Gertaera horien aurrean, Israelek ekintza militar izugarriekin erantzuten du, eta premia biziko ondasunak bahitzen ditu.

NBERen Batzar Nagusiak estatu behatzaile gisa aintzatetsi zuen Palestina, 2012an.



2 INTERPRETATU MAPAK.

- NBERen proposamenari jarraituz, nola banatu behar zen lurraldea Israelen eta Palestinaren artean, 1948an?
- Zer lurralde beretu zituen Israelek arabiar-israeldar gerren ondoren?



IKASTEKO GAKOAK

- Definitu: Balfourren Adierazpena, PAE eta Intifada.
- Noiz aldarrikatu zen Israelgo Estatuak? Zer testuinguruan?
- Zer gerra eta liskar izan dira israeldarren eta palestinarren artean, 1948az geroztik?

PENTSATU. Nola konpon daiteke israeldar-palestinarraren gatazka?

1945ean, hiru estatu burujabe soilik zeuden Afrikan: Etiopia, Egipto eta Liberia.

Afrika iparraldea eta ipar-ekialdea

Kultura musulmaneko herrialdeen kontzientzia nazionala indartu egin zen gerra arteko garaian, baina ez zen orokor egin Bigarren Mundu Gerra amaitu arte.

Independentzia-prozesu horren sostengu izan zen **panarabismoa**, mugimendu erlijioso eta kultural zabal bat, arabiera eta zibilizazio musulmana ezaugarri komun zituzten herrialdeen arteko elkartasuna sustatzen zuena, nazioarteko proiektzioa izango zuen herrialde-bloke berri bat eraikitzeko helburuarekin.

Herrialde horietan guztietan, Aljerian izan ezik, alderdi independentista batek, negoziazio bidez, autogobernua maila gero eta altuagoa lortu zuen bere metropolitik. (7)

- **Libiak** 1951n aldarrikatu zuen Italiarekiko independentzia. Hasieran, herrialdea monarkia baten agintean egon zen. 1969an, ordea, Kadafi koronelak diktadura ezarri zuen.
- Frantziak 1956an aintzatetsi zuen **Marokoren** eta **Tunezen** independentzia. Urte hartan bertan, Espainiak uko egin zion Marokoren lurraldean zuen protektoratuari. 1969an, Sidi Ifni Marokori eman zion, eta 1975ean, **Sahara Espainiarra** Marokoren eta Mauritaniaren esku utzi zuen.
- **Aljeriak** independentzia-prozesu luzea izan zuen. 1954an independentziaren aldeko matxinada bat izan zen, FLN Nazio Askapenerako Fronteak bul-tzata. Frantziak tropak bidali zituen matxinada hari erantzuteko, baina frantziar iritzi publikoa zatituta zegoen. Batzuek independentzia eman nahi zieten aljeriarrei; besteei, berriz, koloniar eutsi nahi zioten, eta horren ondorioz, gerra piztu zen, koloniar eustearen aldekoek talde paramilitarrak eratu baitzituzten. OAS izeneko talde haiek ekintza terroristak egin zituzten independentisten aurka. Frantziak 1962an aintzatetsi zuen Aljeriaren independentzia, Eviangio Hitzarmenaren ostean.



7. AFRIKAREN DESKOLONIZAZIOA



3 INTERPRETATU MAPA.

- Afrikako zer herrialde ziren independente 1950. urtea baino lehen?
- Zer alditan gertatu zen Afrikaren deskolonizazioa, gehienbat? Aipatu aldi horretan independentzia erdietsi zuten herrialdeetatik lau.
- Zer herrialde izan ziren independizatzeko azkenak? Zer inperio kolonialetakoak ziren?

Saharaz hegoaldeko Afrika

Europako potentziek itun bidez, eta oro har, modu baketsuan, eman zieten independentzia Saharaz hegoaldeko Afrikako estatuei. (7) Beste leku batzuetan ez bezala, lurralde horietan **ez zen mugimendu nazionalistarik eratu**. Horregatik, Europako metropoliek XIX. mendean egindako banaketa kolonialaren arabera ezarri ziren herrialdeen mugak, independentzia-aldarrikapenen ondoren. Sarritan, estatu bakar baten barruan sartu ziren etnia eta kultura asko, oso desberdinak elkarren artean, eta batzuetan, elkarren etsaiak ere bai. Halaber, bi herrialde sortuberrian edo gehiagotan zatituta geratu ziren zenbait herri.

Independentzia-prozesu horien aitzindariak **europartutako klaseetako gutxiengoak** izan ziren. Gutxiengo horietatik sortu ziren independentzia-prozesuen buruak, hala nola Nyerere Tanzanian, (8) Senghor Senegalen, (9) Lumumba Kongo Belgikarrean eta Nkrumah Ghanan. (10) Hala ere, subiranotasun-aldaketa horiek ez zioten askorik eragin biztanleriaren gehiengoari.

Arrazoi horiek direla eta, estatu berrien eraketa ez zen samurra izan, eta behin emantzipatu zirenean, arazoak sortu ziren: Europan hezitako elite indigenak ez ziren gai beren herrietako gehiengoarekin komunikatzeko, tokiko tradizioekin zerikusirik ez zuten erakundeak sortu ziren, ez zegoen nazio-sentimendurik, tribuen arteko gatazkak piztu ziren, mugengatiko liskarrak... Estatu horietako askotan, gobernu diktatorialak inposatu ziren. Diktadura militarrek ziren, edo militarrek sostengatuak.

Beste alde batetik, metropoliekin zituzten lotura politikoak, ekonomikoak eta kulturalak zirela eta, bi erantzun-mugimendu sortu ziren:

- **Négritude** edo beltz-kultura, Afrika beltzaren balio kulturalak eta espiritualak berresten zituen.
- **Panafrikanismoa**, afrikar herrien arteko elkartasuna eta batasuna bultzatzen zituen mugimendu bat. Akkrako Konferentzian sortu zen, 1985ean, eta Addis Abebakoa sendotu (1963), **Afrikar Batasunerako Erakundea (OUA)** sortuta.



IKASTEKO GAKOAK

- Nor izan ziren Afrikako independentzia-prozesuaren protagonista nagusiak? Modu masiboan parte hartu al zuen herriak?
- Nolakoa izan zen Afrika iparraldearen eta ipar-ekialdearen deskolonizazioa? Eta Saharaz hegoaldeko Afrikarena?

PENTSATU. Gogoratu orain arte ikasitakoa. Zergatik desagertu zen azkena Portugalدار Inperio koloniala?

BA OTE DAKIZU?

Afrikaren deskolonizazioaren protagonistak



Julius Nyerere (1922-1999)

Lider independentista eta OUAren sustatzaileetako bat. Edinburghen ikasi zuen. Borroka egin zuen, 1961ean independentzia lortu zen arte. 1964an Tanganyikak eta Zanzibarrek bat egin eta Tanzania sortu zuten.

8. Julius Nyerere.

Léopold Sédar Senghor (1906-2001)

Senegalgo lider independentista eta beltz-kulturaren defendatzailea. Afrikako errealitatean eta humanismoan oinarritutako sozialismoaren aldekoa zen. Frantses Akademiako kide aukeratu zuten, haren literatura-lanen balioa zela eta.



9. Léopold Sédar Senghor.



Kwame Nkrumah (1909-1972)

Ghanako lider independentista. Britainiarren agintearen aurkako erresistentzia-mugimendu baketsu baten buru (kooperaziorik eza sustatzen zuen). Ghanako presidentea izan zen 1961etik 1966an estatu-kolpe batek agintetik kendu zuten arte.

10. Kwame Nkrumah.



4 HERRITARTASUNERAKO HEZKUNTZA.

Irakurri *Eranskinean* Afrikar Batasunerako Erakundearen sorrera-gutuna.

- Zer printzipio ideologiko zituen oinarri?
- Zer helburu zituen?

Hegoafrika: *apartheid*etik demokraziara

Apartheida

1948an, gutxiengo zuriak arrazagatiko diskriminazioko erregimen bat ezarri zuen, *apartheid* deritzona, Hegoafrikako gehiengo beltzaren aurka. Zuriak eta beltzen arteko ezkontzak debekatu zituzten, herritar beltzak lan jakin batzuk soilik egitera behartu zituzten, eta sakabanatutako lurretan kontzentratu zuten biztanleria beltza, ikastetxeetan haur zuriak eta beltzak bereizi zituzten... Hegoafrikar Batasunak bazuen nolabaiteko autonomia XX. mendearen hasieratik, baina 1961ean independizatu egin zen, eta Hegoafrika izena hartu zuen. Dena den, *apartheid*ak iraun egin zuen. (11 eta 12)

Nazionalista beltzak, politika horren aurka zeudenez, Afrikako Kongresu Nazionalan elkartu ziren, **Nelson Mandela** lider zutela. 1960tik aurrera, *apartheid*aren aurkako mugimendu orokortu bat garatu zen.

Hegoafrikako gobernuak, aurkaritza horri erantzuteko, errepresio-neurri izugarri bortitzak baliatu zituen: Shapervilleko sarraskia, 1960an; Mandelaren biziarteak kartzela-zigorra, 1964an; (13) Sowetoko hilketa, 1976an; aurkariaren exekuzioak, gobernuaren esanetan kartzelan izandako suizidioak izan zirenak...



11. Soilik zurientzako banku bat, Hegoafrikako hiri batean, 1974an.

12. APARTHEIDAREN EZARPENA

1949	Zuriak eta beltzen arteko ezkontzak debekatu ziren.
1950	Biztanleria arraza-taldetan sailkatu zen.
1953	Zuriek eta beltzek nork bere aldetik erabili behar zituzten, derrigorrez, garraio publikoak, parkeak, hondartzak, posta-bulegoak...
1959	Biztanleria beltza <i>bantustan</i> edo erreserba tribaletan bizitzera behartu zuten.

FUNTSEZKO TESTU HISTORIKOAK

Ideal bat bizitzeko arrazoi

Afrikarrek zera nahi dute, gutxiengo soldata ordain diezaieten. Afrika-
rrek zera nahi dute, egin dezaketen lan bat egin, eta ez gobernuaren
hitzetan egin dezaketen bat. Afrikarrek zera nahi dute, lana izan de-
zaketen lekuan bizitzen utz diezaieten, eta inondik kanporatuak ez izan,
han jaio ez direlako soilik. Afrikarrek zera nahi dute, [...] inoiz beraie-
nak izango ez diren alokairuko etxeetan bizitzera behartuak ez izan.
Afrikarrek zera nahi dute, [...] beren ghetto propioetan giltzapetuak
ez izan. [...]

Afrikarrek zera nahi dute, hamaiketatik aurrera irteten utz diezaieten,
eta ez beren geletan giltzaperatuak izan, haur txikiak balira bezala.
Afrikarren beren herrialdean bidaiatzeko utz diezaieten nahi dute [...].

Nire bizitza osoa eman dut afrikarren borroka horretan. Borroka egin
dut zuriak azpiratzearen aurka, eta borroka egin dut beltzen azpiratze-
aren aurka ere. Gogo biziz desio izan dut gizarte aske eta demokratiko
bat, zeinetan pertsona guztiok elkarrekin, harmonian eta aukera-
berdintasunez biziko garen. Ideal bat da, bizitzeko indarra ematen di-
dana [...]. Baina beharrezkoa bada, bizi emango dut ideal horrengatik.

Mandelak Pretoriako Auzitegi Gorenaren aurrean egindako deklarazioa, 1964ko apirilaren 20an



13. Nelson Mandela, jada zahartuta, gazte-denborako bere argazkiei so, bere omenez egindako museoan.



14. Hegoafrikako lehen hauteskunde demokratikoak, 1994an. NBEko behatzaileek gainbegiratu zituzten, eta milaka hautesle beltz ordu luzez ilaratan egon ziren zain, sufragio-eskubidea baliatu ahal izateko.

Demokraziarako bidea

Urteek aurrera egin ahala, munduak *apartheida* gaitzetsi zuen. Hegoafrikak herrialde askoren boikot ekonomikoa pairatu zuen, eta nazioarteko kirol-lehiaketetatik baztertua izan zen. Bere mugen barruan, bestalde, *apartheidaren* aurkako manifestazioak egin ziren, eta ugaritu egin ziren poliziaren eta erregimenaren aurkarien arteko liskarrak.

1988an, Nelson Mandelak, oraindik ere kartzelan zela, *apartheidaren* amaiera negoziatzea proposatu zion hegoafrikar gobernuari. 1989an, F. W. de Klerk izendatu zuten Hegoafrikako presidente. Mandelarekin negoziatzen hasi zen, eta 1990ean, kartzelatik atera zuen. Horrela, erreformak areagotzen joan ziren.

- 1993an, *apartheida* ezeztatu zen.
- 1994ko apirilaren 27an, Hegoafrikako lehen hauteskunde demokratikoak egin ziren. (14) Nelson Mandela aukeratu zuten presidente, eta kargu horri eutsi zion 1999ra arte.
- 1997an, konstituzio berri bat jarri zen indarrean, Afrikan zirenetan aurreratuenetakoa, herritar guztien eskubideak aitortzen zituen.

Gaur egun, Hegoafrika herrialde demokratikoa da, baina arrakala ekonomiko handia dago beltzen eta zurien artean.



5 HERRITARTASUNERAKO HEZKUNTZA.

- Zer izan zen *apartheida*? Zer eskubide ukatzen zizkion biztanleria beltzari? Zure ustez, zergatik ezarri zen?
- Zer lotura dago *apartheidaren* eta kolonialismoaren artean?
- Argitu eta azaldu zer gertatu zen Shapervillen, 1960an, eta Soweton, 1976an.
- Zer aldarrikatu zuen Mandelak 1964an epaitu zuen auzitegiaren aurrean? Zer deritzezu aldarrikapen horiei?
- Ikertu eta egin biografia bat Nelson Mandelari buruz. Balioetsi pertsona horren garrantzi historikoa.
- Irakurri *Kirola eta batasuna* testua. Zer azaltzen du? Testua gertaera errealetan oinarritutako liburu batekoa da. Ikertu eta azaldu zer gertatu zen.
- Zure ustez, lagundu al dezake kirolak pertsonen arteko aldeak gainditzeko? Arrazoitu zure erantzuna.

Kirola eta batasuna


Iritsi zen eguna, [...] Hegoafrikak aurre egingo zion munduko selekziorik onenari, Zeelanda Berriari, errugbiko Munduko Koparen finalean. [...]

43 milioi hegoafrikarrek, izan zuri, beltz edo edozein koloretakoak, desio bera zuten: beren taldea, *Springbokak*, garaile izatea.


[...] Kopa hasi baino lehen, agian jokalariren bategen edo bestek izango zuen, inoiz, pentsamendu iheskorren bat politikari buruz, baina ez gehiago. [...] Hilabete lehenago, txapelketa hasieraren bezperan, Mandelak bisitatu zituenetik, ordea, ideia berri bat zuten buruan: aktore politiko egin zituzten, benetan. Final-egunaren goizean, argi ulertu zuten Zeelanda Berriaren aurkako garai-penak bidea emango ziola ustez ezinezkoa zen zerbaiti: herrialde bat elkartuko zuen, munduko beste edozein herrialde baino gehiago polarizatuta zegoena, arraza-bereizketa zela eta.

J. CARLIN, *El factor humano*, 2008

15. BIZTANLERIAREN BILAKAERA



16. UGALKORTASUNAREN BILAKAERA



6 INTERPRETATU GRAFIKOAK.

- Zer kontinentetan hazi da gehien eta arinen biztanleria?
- Lotu kontinente bakoitzeko biztanleriaren hazkuntza ugalkortasunaren bilakaerarekin.



IKASTEKO GAKOAK

- Azaldu Hirugarren Munduko herrialdeen ezaugarri komunak.
- Definitu neokolonialismoa eta Lerrokatu Gabeko Herrialdeen Mugimendua.

PENTSATU. Zergatik erabiltzen da Ipar-Hego adierazpena herrialde aberatsak eta pobreak izendatzeko?

5

Hirugarren Munduaren sorrera

Zer da Hirugarren Mundua?

Deskolonizazioaren ondorioz sortutako estatu berrietako asko eta asko (Latinoamerikako zenbait herrialderekin batera) Hirugarren Munduaren parte izatera pasatu ziren. Hirugarren Mundua ez zen ez mundu komunistakoa ez kapitalistakoa, eta ezegonkortasun politikoa eta garapen-maila baxua zituen ezaugarri. 1980an, beste adierazpen zabaldu zen, **Ipar-Hego**, iparraldeko herrialde aberatsetan eta hegoaldeko herrialde pobreetan banatutako mundu bat aipatzeko.

Hirugarren Munduko herrialdeek ezaugarri komun batzuk dituzte:

- **Pobrezia eta desberdintasun sozialak.** Biztanleriaren parte handi bat pobrezia-atariaren azpitik bizi da (eguneko dolar batekin edo gutxiagorekin). Bada, ordea, aberastasun handiak dituen gutxiengo bat.
- **Biztanleria-hazkunde handia (leherketa demografikoa).** Jaiotza-tasa altuak eta heriotza-tasa gero eta baxuagoak dituzte – azken hori garatutako herrialdeetako baina altuagoa den arren, oraindik–. Hori horrela izanik, hazkunde natural handia dute, eta horrek biztanle kopurua asko eta azkar handitzea eragin du, herrialde pobre askotan. **(15 eta 16)**
- **Zorpetze handia,** nazioarteko erakundeen eta beste herrialde batzuen maileguak eta laguntzak direla eta. Laguntza eta mailegu horiek, sarritan, esku pribatuetara iristen dira, ustelkeriaren ondorioz.
- **Lehen sektorearen garrantzia eta industriaren atzerapena.** Nekazaritza-ekoizpena txikia da, eta ez ditu asetzen biztanleriaren elikadura-beharak. Horrek nekazari-exodoa ekarri du berarekin, eta beraz, hirien hazkunde handia eta kanpoko herrialdeak helburu dituzten migrazioak. Industria, halakorik denean, atzerriko multinazionalen esku egon ohi da.
- **Ezegonkortasun politikoa.** Sarritan izaten dira gerra zibilak, mugengatiko liskarrak, estatu-kolpeak, diktadurak eta giza eskubideen urraketak.

Mendekotasun ekonomikoa eta neokolonialismoa

Aro kolonialean, metropolien helburu bakarra kolonietako baliabide naturalak ustiatzea zen, ez zuten haiek ekonomikoki garatzeko interesik.

Deskolonizazioa gertatu zenean, independizatu ziren arren, antzina koloniak izandako herrialdeek ezinbestean jarraitu behar izan zuten garatutako herrialdeei landutako produktuak erosten, oso prezio altuan, eta baliabide naturalak herrialde aberatsei saltzen, hutsaren truke. Horrek guztiak **merkataritza-elkartruke ez-parekatua** eragin du, eta kalte egin die gutxien garatutako herrialdeei.

Bestalde, maileguak beste herrialdeei eta atzerriko erakundeei itzultzeko ezintasunak **kanpo-zor** handia eragin du. Zor hori handitu egiten da, gainera, herrialde garatuetatik teknologia garestia inportatu behar izaten dutelako.

Horrek guztiak mendekotasun ekonomiko handia eragin du, gutxien garatutako herrialdeena herrialde garatuekiko. Horregatik esaten da, hain zuzen, **neokolonialismo ekonomikoaz** ordezkatu dela kolonialismo politikoa.

Bi blokeen artean

Nazioarteko politikari dagokionez, Hirugarren Munduko herrialdeak saiatu egin ziren neutraltasunari eusten, hasieran behintzat. Planteamendu hori **Bandungeko Konferentzian** (1955) islatu zen, eta handik sortu zen **Lerrokatu Gabeko Herrialdeen Mugimendua**. Izen hori jarri zioten, hain zuen, estatu berriek ez zutelako bat egin nahi ez bloke komunistarekin ez bloke kapitalistarekin. (17)

Konferentzia horretan berriki deskolonizatutako 29 estatuk hartu zuten parte. Kolonialismoa eta arrazagatiko bazterketa salatu zituzten, nazioen independentzia eta garapen ekonomikoa sustatzeko beharra aintzatetsi zuten, eta horrez gain, aldarrikatu egin zuten herrialdeek ez zutela esku-hartu behar beste estatu baten barneko kontuetan.

Lerrokatu Gabeko Herrialdeen Mugimendua porrot egin zuen. Herrialde horietako gobernuek ez zituzten bete garapen ekonomikoan jarritako helburuak, eta ez zuten blokeetatik at iraun, Hirugarren Mundua potentzien gudu-zelai bihurtu baizen, eragin-eremuak zabalteko borrokan. Hori gutxi balitz bezala, argi eta garbi lerrokatutako zenbait herrialde izateak –Kuba, adibidez–, mugimenduaren sinesgarritasuna urratu zuen.

FUNTSEZKO TESTU HISTORIKOAK

Bandungeko Konferentzia

Herrialdeek [...] lankidetzat sustatu behar lukete [...] printzipio hauek oinarri hartuta:

1. Oinarritzko giza eskubideekiko errespetua [...].
2. Nazio ororen subiranotasunarekiko eta lurraldetasunarekiko errespetua.
3. Arraza eta nazio guztien berdintasunaren aitortza [...].
- 6 [...] Defentsa kolektiborako hitzarmenetan ez parte hartzea, potentzia handietako baten edo bestearen [...] interesen alde [...].
8. Nazioarteko gatazka guztiak konpontzea, bide baketsuen bidez [...].

Bandungeko Konferentziaren komunikatua, 1955




- Zer printzipiotan oinarritu beharko lirateke nazioarteko harremanak, testu honen arabera?

17. LERROKATU GABEKO HERRIALDEEN MUGIMENDUA



7 LABURTU FUNTSEZKOA. Kopiatu eskema koadernoan, eta osatu.



Denbora

8 Adierazi gertaera hauen datak eta kokatu denbora-lerro batean (behekoaren antzekoa izan daiteke).

- Bandungeko Konferentzia
- Marokoren independentzia
- Indiaren independentzia
- Indonesiaren independentzia
- Pakistanen independentzia
- Bangladeshen sorrera
- Aljeriaren independentzia
- Tunisiaren independentzia



9 Egin arabiar-israeldar gatazkari buruzko denbora-lerroa. Jar al daiteke gatazkaren amaiera-data? Arrazoitu erantzuna.

Testuak

10 Irakurri testua eta erantzun.

Lankidetza eskatzen zaigu [...] Frantzia berregiteko [...]. Onartzen dugu, baina ez dezala metropoliak bere burua engainatu eta ez dadila guri iruzur egi-ten saiatu. «Beltz ona» hilda dago [...]. Urrezko arrautzak ematen zituen oiloa hil dute. Hiru mende-ko esklabo-trafikoa eta mende bateko okupazioa [...] izanda ere, ez diegu sinetsi gutxiago garenik. Duintasunean eta ohorean oinarritutako lankidetza nahi dugu [...]. Nazkatuta gaude hitz onez [...]. Justizia-ekintzak behar ditugu. Senegaleko egunkari batek esan bezala: «Ez gara separatistak, berdintasuna nahi dugu komunitatean». Bai, halaxe diogu: **BERDINTASUNA**.

L. SÉDAR SENGHOR, *Afrika beltzaren defentsa*, 1945

- Nork idatzi zuen testua? Zer datatan?
- Zer aurpegiatzen dio testuaren egileak metropoliari?
- Zer-nolako lankidetzarako dago prest?

Lurraldea

- 11** Marraztu Afrikaren mapa, gaur egungo politika-banaketa kontuan hartuta. Kontsultatu Afrikaren deskolonizazioaren mapa eta koloreztatu 1945etik gaur egun arte independentzia lortu duten herrialde guztiak.

Kontzeptuak

- 12** Eman kontzeptu hauen definizioa:

- Deskolonizazioa
- Hirugarren Mundua
- Lerrokatu gabeko herrialdeak
- Beltz-kultura
- Neokolonialismoa
- Panarabismoa

Protagonistak

- 13** Azaldu pertsona hauen rol historikoa: Yaser Arafat, Léopold Sédar Senghor, Ahmed Sukarno, Nelson Mandela, Gandhi, Ho Chi Minh.

Kausak eta ondorioak

- 14** Erantzun galderei.

- Zein izan ziren deskolonizazioaren berehalako kausak? Eta kausa sakonak?
- Zer arazo eragin zituen India britainiarren deskolonizazioak?
- Zein izan zen lehen arabiar-israeldar gerraren kausa? Zer ondorio izan zituen?
- Zergatik jo zuen hain luze Aljeriaren independentziak?
- Afrikako deskolonizazioaren ostean, mugekin lotutako gerra eta gatazka ugari izan dira. Zergatik?
- Zein izan ziren lerrokatu gabeko herrialdeen mugimenduaren porrotaren kausa nagusiak?
- Zer faktorek azaltzen dute garapen-maila txikieneko herrialdeen kanpo-zor handia?
- Zergatik esaten da neokolonialismoak kolonialismoa ordeztu duela?

KONPROMETITUAK

Deskolonizazioaren ondarea

Zenbait motatakoa da ondare hori.

- **Politikoa.** Ondare nagusia herrialde berri batzuen sorrera da. Halaber, gatazkek sortu dira, eta gaur egun ere diraute.
- **Soziala.** Gandhik sustatutako erresistentzia baketsua gaur egun oraindik erabiltzen den borroka-forma bat da. Gaur egun, herri guztien legezko berdintasuna aitortzen da, arraza-bereizkeriarik gabe, eta hori ere, deskolonizazioak utzitako ondarea da.
- **Kulturala eta artistikoa.** Herrialde berriek berezko artea garatu dute. Askotan, arte horretan, haien egoera gordintasunez adierazten da edo Mendebaldeko zibilizazioaren bizimodua hartzearen aurkako kritika egiten da.

- 18.** *Bizitza arrakastatsua, Kongoko Errepublika Demokratikoko Chéri Samba pintorearen margolana.*



- 15** Politika.

- Alderatu gaur egungo munduko mapa bat unitate honetako deskolonizazioei buruzko mapekin. Zenbat herrialdek lortu zuten independentzia Bigarren Mundu Gerraren ondoren?
- Kontsultatu web orri hau: <http://www.un.org/es/decolonization/nonselfgovterritories.shtml>. Ikertu zer diren lurralde ez-autonomoak, zein diren eta zer herrialderen menpe dauden.



- 16** Arte.

- Deskribatu Chéri Sambaren margolana. Zer etniatakoak dira protagonistak? Non daude? Nola daude jantzita gizona eta emakumea? Eta haurrak? Zertan ari dira?
- Margolaneko zer elementuk dute lotura izenburuarekin?
- Zer mezu transmititzen du margolanak?



ANALISI ETIKO ETA MORALA. Nola bizi dira emakumeak gutxien garatutako herrialdeetan?

Garapen-maila txikieneko herrialdeetako emakumeak, oro har, diskriminazio handiko egoeran bizi dira. Asko ez dira inoiz eskolara joaten, edo eskola utzi behar izaten dute, familiari etxeko lanetan laguntzeko, anaia-arreba gazteagoez arduratzeko edo lan egiteko. Oro har, nerabezaroan edo nerabezaroarean izaten dituzte seme-alabak, eta asko hiltzen dira erditzean gertatutako konplikazioengatik. Hala ere, emakumeen eginkizuna funtsezkoa da herrialde horietan, emakumeak baitira sarritan familien ekonomiaren sostengua.



19. Emakumeak saltzen Gambiako azoka batean.

20. SAHARAZ HEGOALDEKO AFRIKAKO GENERO-ADIERAZLEAK

ADIERAZLEA	GIZONAK	EMAK.
Eskolatze-tasa lehen hezkuntzan (%)	79,7	75
Lehen hezkuntza amaitzen duten ikasleak (%)	72	66,1
Analfabetoak (%)	31,3	47,6
Langile kualifikatuen laguntza izan duten erditzeak (%)	...	48,8
Amen heriotza-tasa (bizirik jaiotako 100.000 haurreko)	...	560

ITURRIA: Munduko Bankua, 2016.

21. EMAKUMEEN HAUR-LANA (7- 14 URTE)

HERRIALDEA	NESKA GUZTIEN %
Kamerun	60,4
Ginea Bissau	48,1
Ghana	48
Togo	47
Niger	46,7
Nepal	45,4

ITURRIA: Munduko Bankua, 2016.

22. KOLOKAKO ENPLEGUA DUTEN EMAKUMEAK

HERRIALDEA	EMAKUME LANGILE GUZTIEN %
Etiopia	91,4
Boli Kosta	89,3
Uganda	85,5
Ruanda	84,4
Butan	67,5
Azerbaijan	62,1

ITURRIA: Munduko Bankua, 2016.

Beningo neskato baten nahiak

–Zer gustatzen zaizu gehien? Abestea gustatzen zait gehien. [...]

–Zein da zure nahi handiena? Benetako oinetakoak izan nahiko nituzke. Oraingoz, txankleta batzuk baino ez ditut, nire familia osoak bezala. [...]

–Zer aldatuko zenuke zure gurasoetan? Gurasoekin ez dago arazorik. Zortzi haur gara eta aitak neskak ere bidaltzen gaitu eskolara.. [...] Hala ere, hobe izango litzateke apur bat aberatsagoak balira. [...]

–Nahikoa diru izanez gero, zer erosiko zenuke? Oihal puska bat [...], janzteko.

–Kutxa gotor bat izango bazenu, zer gordeko zenuke hartan? Dirua.

B. SCHNIPPENKOETTER, *Haurren erantzunak*, 2009

17 Aztertu.

- Saharaz hegoaldeko Afrikan, nork du hezkuntza eskuratzeko aukera gehiago, gizonak ala emakumeak? Zer desabantaila dakarkie horrek emakumeei?
- Herrialde askotan, neskatoek txikitatik egin behar izaten dute lan. Munduko zer zonatan daude herrialde horiek?
- Munduko eskualde horretan, emakume asko hiltzen dira erditzean. Zergatik?
- Ikertu eta azaldu zer den kololako enplegua. Zer kontinentetan da ohikoagoa hori emakumeen artean?
- Demagun zuri egiten dizkizutela Beningo neskatoari egin zizkieten galderak. Zer erantzungo zenuke galdera bakoitzean?


18 Hausnartu.

- Zure ustez, gogorra al da emakumeen bizitza garapen-maila txikieneko herrialdeetan? Arrazoitu erantzuna.
- Alderatu zure egoera herrialde azpigaratuen emakumeen egoerarekin.

Kolonialismoari eta azpigarapenari buruzko txosten bat

Herrialde azpigaratu gehienak Europako inperioetako baten kolonia izandakoak dira. Horregatik, kolonizazioa da herrialde horien atzerapena azaltzen duen faktoreetako bat, baina egoera aldatu egiten da batetik bestera.

23. GIZA GARAPENAREN INDIZEA



19 IKT. Ikertu eta azaldu zer den Giza Garapenaren Indizea.



20 Alderatu mapa 5. unitateko inperio kolonialen maparekin.

- Adierazi gaur egun garapen-indize baxua duten sei kolonia ohiren izenak.
- Ba al daude garapen-maila ertaina eta altua duten kolonia ohiak? Zein dira?



21 HERRITARTASUNERAKO HEZKUNTZA.

- Kolonialismoaren zer alderdik izan dezakete eragina kolonia ohien garapen-maila txikian? Eman adibide batzuk.
- Irgan kolonialaz gain, zer beste faktore hartu behar dira kontuan azpigarapena azaltzeko? Eman adibide batzuk.
- Egin txosten bat, kolonialismoaren, deskolonizazioaren eta azpigarapenaren arteko lotura azaltzeko.



GOMENDIOAK

Liburuak:

Graham GREENE, *El americano imposible*, 1955.
León URIS, *Éxodo*, 1958.

Filmak:

Gandhi, Richard ATTENBOROUGHek zuzendua, 1982.
Indochina, Régis WARGNIERek zuzendua, 1992.
Invictus, Clint EASTWOODek zuzendua, 2009.
La batalla de Argel, Gillo PONTECORVOK zuzendua, 1965.

Webguneak:

Garapenerako GKE-en koordinakundea (<http://campus.coordinadoraongd.org/>).
NBE eta deskolonizazioa (<http://www.un.org/es/decolonization/>).